

**ZUMAIA LANTZEN S.A.ren
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

79ZK-KO AKTA

ZUMAIA LANTZEN S.A.ren Administrazio Kontseilua ZUMAIAn bildu da, bi mila eta hiruko maiatzaren 21ean.

BERTARATUAK:

Lehendakaria: Rikardo PEÑA KINTELA
Batzarkideak: Asier ESNAL ALBIZU
Arantxa GAJATE TELLERIA

Idazkaria: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

FELIPE GUTIERREZ SERVAN jaunak ezin duela etorri adierazi du, eta bere ordezkari-tza Ricardo Peña Kintela lehendakariaren esku utzi du.

Bilerara etorri dira Luziano Paguegi, udal arkitektoa, eta Tomas Eizmendi eta Yolanda Gimilio ESARBE S.A.ko ordezkariak ere.

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- Aurreko Kontseiluko Akta irakurri eta onestea (2002ko abenduaren 23ko 78.akta).

Kontseiluaren 02/12/23ko 78zk-ko akta irakurri da, eta aho batez onartu da zuzenketarik egin gabe.

2.- Informazio Orokorra.

Jakinarazi da harremanak eduki direla 22.HGAKo jabeekin (Estazioa), auzoa berritzeko egin daitezkeen jarduketaz hitz egiteko. Egin diren bileretan azaldu zaie izapidetzen ari den AA.SS.en berrikuspenean 22.HGARI 47 etxebizitzaren aprobetxamendua eman zaiola jarduketa hori ahalbidetzeko eta gaur egungo jabetzen balorazioa eta aurreikus daitezkeen kargen eta onuren estimazioa ere aurkeztu ondoren, jasotako erantzunak ez dira positiboak izan. Gaia hobeto lantzeko utzi da.

Joxe Mari Korta Industrieguneko A-6-1 lur-zatian eraikitako pabiloiko moduluen salmenta bukatu da. A-6-1 (A) lur-zatian eraikitako pabiloian modulu bakarra dago saldu gabe (3 zenbakiduna).

Erabaki da 3 zenbakidun modulu hau Zumaiako Udalarentzat izatea, eragiketa hori Zumaia Lantzen SA.ren aurreikusitako kapital-gehikuntzarekin batera formalizatuz.

Normaltasunez jarraitzen du Geretxueta S. Kooperatibako Babes Ofizialeko 120 etxebizitzaren eraiketa. Aurreikusitako egitaritza epearekiko aurrerapen txiki batekin doa.

Kontseilua jakinean geratu da.

3.- 2002. Ekitaldiko Kontu Sozialak azaltzea.

2002. Ekitaldiko Kontu Sozialak aurkeztu dira. Gerentziak kontu horien alderdi garrantzitsuenak azaldu ditu, beti jarraitutako irizpidea azpimarratuz, hau da, "Hasitako Obra" kontuaren bidez oraindik bukatu gabeko jardueren emaitzak ez aurreratzen saiatzea.

Aldagarria den Ikuskaritzako txostenaren zirriborroa irakurri da. Txosten horretan urtero egiten diren ohiko oharra jasotzen dira, kontuen egiazkotasunean benetako garrantzirik ez dutenak.

Kontseiluak erabaki du kontuak Zumaiako Udaleko Plenoari aurkeztea (Elkartearen Batzar Nagusia) onartuak izateko.

4.- Sagarbide Kooperatiban S.Koop. Sartzeko Baldintzak (Udalak Tasatutako Etxebizitzak.

Sarrerarako Baldintzak ezartzen dituen Sagarbide S. Kooperatibako Estatutuen 7.artikuluak bere c) paragrafoan zera ezartzen du: "*Etxebizitzaren Sustapenerako Udal Planean Etxebizitza Tasatuetan sartzeko Zumaiako Udalak jarritako baldintzak betetzea*"

Horretarako, Onartzeko Baldintzen proposamen bat aurkeztu du Gerentziak, BOE etxebizitzetara sartzeko Euskal Gobernuak onartutakoa.

Agiriaz eztabaidatu ondoren, zuzenketa batzuek egin dira, akta honekin batera doan testua onartuz.

5.- Zumaiako AA.SS.en 3. Sektoreko A-6 Lur-zatiaren inguruko Hirigintza Lanak adjudikazioa.

Zumaiako AA.SS.en 3.Sektoreko A-6 Lur-zatiaren inguruko Hirigintza Lanak adjudikatzeko pleguak ireki dira. Ikusi da, Lehiaketaren baldintzetan lehiatzaile guztiek bete behar duten proposamen ereduak erantsi bada ere, ohizkoa den bezala, bakoitzak modu batera aurkezten duela bere eskaintza. Hori dela eta, beharrezkoa da eskaintzak homogeneizatzea. Kontseiluak erabaki du, homogeneizatu ondoren, eskaintza merkeenari adjudikatzea.

6.- Beste zenbait eta/edo Eskari-galderak.

Eta beste aztergairik gabe, akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera bukatutzat eman zen, eta nik idazkari honek, sinatu egin dut lehendakariak ontzat eman ondoren.

O. E.
LEHENDAKARIA

IDAZKARIA